



## **ORDEZKOEN ARAUDI BERRIA - ALDAKETAK**

Hezkuntza Sailak irakasle ordezkoen zerrendak kudeatzeko araudi berria argitaratu du (2012ko irailaren 11ko EHAA). Testu berri honek orain arte indarrean egon den 2004ko maiatzaren 26ko ebazpenari azken urteetako egin zaizkion aldaketak batzen ditu eta langile hauen egoera estutzen du berriro, irizpide ideologikoak eta hainbat murrizketa gehiago sartzen.

### **HAUEXEK DIRA ALDAKETA AIPAGARRIENAK:**

- Lurralde bakoitzean zonaldeak sortzen dira, ekainaren 26ko 106/2007 dekretuan zehaztutako barrutiek in bat datozenak.
  - Lurralde bakoitzean zonalde bat edo gehiago aukeratu daiteke.
  - Lurralde baterako egindako aukerak (perfila, jardunaldia, hiru eleko markoa...) bertako zonalde guztietarako komunak izango dira.
  - Gutxienez, lurralde bat aukeratu behar da.
  - Plaza bat ofizioz esleitzeko, lurralde hori hartuko da kontuan.

*Zonaldeak ordezkapenak esleitzeko aplikazio informatikoa martxan ipini bezain pronto hasiko ziren erabiltzen, baina bere ezarpena hurrengo birbaremaziora arte atzeratu daiteke.*

- Aurreko puntuarekin lotuta, etxebizitzatik 50 km-tara baino urrunagoko jardunaldi murriztutako ordezkapenei uko egiteko aukera desagertzen da.

*Neurri hau administrazioak inposatutakoa da, gure iritzia kontra. Hala ere, gogoratu, guk proposatuta, onartu dutela ikasturte honetan ez aplikatzea.*

- EPE aprobatu eta plaza lortu ez dutenek zerrendetan sartzeko aukera dute. Gainditutako espezialitatean bakarrik, espezialitate horren zerrendan lehendik ez badaude. EPEren notaren arabera sartuko dira aparteko zerrenda batean eta hurrengo birbaremazioan merezimenduak kontatu eta zerrenda orokorrean sartuko liriteke.
- Espezialitate batzuetan Hizkuntz Eskakizun gabeko irakasleak onartzen dira (!)
- Erljioko irakasle ordezkoak zerrenda orokorrean sartu dira, zerbitzuak gainontzeko ordezkoei bezala baloratuta. Erljioko zerrendan bakarrik egongo dira besteetan sartu arte EPEren bidez, zerrendak irekitzean...
- Bi ikasturtetan edo 12 hilabetetan denboraldi etenetan irakasten aritzea (2008-2009 ikasturtea amaitu baino lehen) beharrezkoa den formazio pedagogiko eta didaktikoaren baliokidetzat jotzen da, baita formazio hori barruan duen titulazio baliokidea (2009-10-1a baino lehenagokoa bada).



- Baremoan aldaketak: zailtasun bereziko lanpostuetan (zehazteke oraindik!) emandako zerbitzuek ikaragarriko puntuazio gehiago izango dute: 1,5 puntu hilabeteko.
- EPE-ko nota baremoan sartzeko aukera aurreikusten da.
- Arte Plastikoetako eta Diseinuko zerrendak berrantolatzen dira. Berritzeguneetako eta beste laguntza zerbitzuetako ordezkapenentarako zerrenda bat irekitzen da, ezaugarri desberdinekin. Hiru zerrenda berezi berri irekitzen dira HIPI, (LH eta BH) eta Kultura Klasikoa irakasteko titulazio egokia (tituluaren zerrenda agertzen da) duten ordezkoentzat. Zerrendan ez egoteko aukera baieztatu behar da.
- Azken urteotan aldatuz joan den espezialitateen eta ikasgaien arteko baliokidetzak gaurkotzen da.
- Zerrendak garbitzeko bi irizpide berri sartzen dira: bost urtez zerbitzu efektiboak eman barik daramatzatenak, birbaremazioaren urtea barne, kanporatuko dituzte; edo hiru urtez lan egin ez eta perfila edo gaitasun pedagogikoa egiaztatu ez dutenak.
- Egunero sortzen diren ordezkapenak esleitzeko sistema telematikoa berria aurreikusten da, telefono deiak ordezkatzeko dituenak. Sistema honek beste aplikazio informatiko bat izango luke euskarri, eta era esperimentalean eta partzialki abiaraziko da, modu orokorrean ezarri baino lehen.

## STEE-EILASen BALORAZIOA

Arrazoi askorengatik, indarrean zegoen araudia berrikusi eta gaurkotzea beharrezkoa zen. Hobetzea izan da STEE-EILASen asmo nagusia berrikuste prozesu luze honetan. Eta hobetu nahi genuen, argi dago, gero eta gogorragoak diren lan baldintzak pairatzen dituzten milaka ordezkoei begira (lana lortzen dutenean...). Araudiaren moldaketa hau, ordea, ez da gure gustukoa: zonaldeen gaian hobekuntza teorikoa ekarri dezakeen arren, inposatutako azken lan hitzarmenetik sortutako puntu batzuk sartzen dituelako, neurri onartezinak, hizkuntz perfila edo EPEren nota besteak beste. EPE aprobata dutenei zerrendak irekitzearen neurria ona irudi daiteke, baina zerrendak irekiera bera ordezkatzeko duela uste dugu. Honen ordez beti proposatu dugu zerrendak urteroko maiztasunaz irekitzea. Prozesuen berrikuntza teknologikoa erosotasun pixka bat lekarkieke langileei, baina gutxi da neurri atzerakoien ondoan.

Edozein kasutan, ordezkoen egoera urtez urte gero eta okerragoa da: murrizketa, lan eskaintza gutxitzea, ... Honek elementu nagusia jarraituko du izaten gure eguneroko lanean, negoziazio ezberdinetan eta bultzatzen ditugun mobilizazioetan.